

# EUSKAL-SOÑU SORTA

(SUITE VASCA)

## I

### ERROMERIRA

*Guazen erromerira  
alaiturik barrena,  
billatuko degu  
poztasun dena.*

*Umore ederrian  
egiñaz algara,  
gośo gośo guziyak  
ibilko gera.*

*Danboliñ soñua  
gutziz eztiya  
orrek mugitzen du  
biyotz estiya.*

*Dantzatu bear degu  
Jainkuak nai badu,  
eroskillak ere  
izango ditugu.*

*Gero anchen gustora  
gu gabiltzanian,  
kontuak kontatuaz  
sasoi onian,  
poza senti dala*

*barrenian,  
pozkida gozo ta  
ederrian,  
zeñen gustora  
denak batian  
zori ona ta  
paketasunian.*

## II

### OTOITZA

*Birjiña Ama kutsu gabeko  
izar gidariya,  
naigabe denen pizkor bidea  
bai atzegingarri;a;  
Zuk pizkortutzen diguzu  
gure barrengoa lariya,  
zera lagundutzallea  
¡Ama gure maitetiya!*

*Lagun gaitzazu zeruetatik  
Ama miragarrinya,  
bana gaitzazu orain arte  
bezela zure graziya;  
gaur zuretzako degu guk  
otoiza ta biyotz guziya  
izan zazu beti guretzako  
beti beti errukiya.*

## III

## SAROIKO ATZEGIÑAK

Ariñ ariñ zelaya-ra,  
guazen dantza ederrak ikustera,  
Ai zer alaitasuna,  
Zer gozua,  
mendi goyan entzun dute  
chilibitu chilibitu soñua,  
ematen du poztasuna;  
gure barrenak alai daude  
auñen da bai gozotasuna,  
leku pare gabe onetan  
senti da zoriontasuna.

Arratzalde gozoa  
eta dotoria,  
iñola eziñ liteke bada

guretzako obia;  
pasa bear degu emen  
denak naiko umoria,  
dantza soñu jolasa  
parerikan gabia,  
pozarekin pill pill jartzen  
zaigu gaur barren guria.

Doñua entzuten da  
soñu euskaldunarena,  
biyotza mugitzen du  
alai jartzen du barrena.

Egiñ zagun guziyak  
pozturik algara,  
guazen gu denak  
oraiñ dantzara.

## IV

## ERROMERITIK BIURKERA

Guztiyak elkartu gaiten batera  
soñu ta umore ederrarekin,  
pozez beterik guztorra  
joan bear degu eche aldera  
elkarrekin,  
algara ederra egiñaz bidean  
uju, aja jai sasoi onarekin,  
erroskillak gozoak dirala gerekin,  
tanbolin soñu alaya  
atabalen zazta zazta  
entzunaz pozarekiñ,  
irrintzi aupa mutillak,  
egin zagun denak oraiñ  
indar guziyarekin.

2

*Zer giro ederra ta gozoa  
degun gaur biderako,  
pozez joateko,  
euskalduna bezelakorik  
iñon bai aldago  
naiz kanta, naiz soñua,  
irritintzi algara gozua,  
atzegintasuna da barrenerako,  
erromeriya zer ona dan guretzako.*

*Eche aldera guazen denak gaur pakian,  
oñak chit pizkor ibillirikan birian,  
aupa mutillak kanta dezagun denak batian  
alaiturikan umore onian.*

*Artolak dauka Artolak dauka  
Artolak dauka famia,  
beria dubela beria dubela  
Bizkai guztiko jendia;  
Artola jaun noblia  
gudari pare gabia.*

*Kanta dezaguz guztiyok batian.*

JOSÉ ARTOLA

